

PROIEKTUAREN DESKRIBAPENA

Gure proiektua webgune bat da. "Páginas amarillas"en funtzio antzekoa du, baina desberdintasunekin.

Webgune honen helburua da zerbitzuen bilaketa bezeroei erraztea eta harremanetan jartzea bezeroei aukeratutako zerbitzuaren enpresarekin.

Plataforma honetan eskainiko den zerbitzua eremu jakin bateko lanbideekin harremanetan jartzeko, publizitatea egiteko eta beste zerbitzuak eskaintzeko aukera emango da .

Hasiera batean, eremu jakin batean ezarriko dugu, proba moduan, Gipuzkoan adibidez eta gero zabaltzen joango gara.

Webgunearen antolaketa honelako da:

1. Zerbitzu motaren arabera banatuko da.
 - a. Eremu geografikoaren arabera antolatuko da lehen atalaren barnean.
2. Beste atal bat egongo da zure zerbitzua sartzeko (formularioa).
3. Harremanetan jartzeko informazioa.

Nahi den lanbidearekin harremanean jartzeko ere behar den informazioa egongo da.

Enpresa batek bere zerbitzua talde honetan sartzeko oso erraza da, atal bat egongo da non zure datuak (helbidea, telefonoa, e-mail-a, ...) eta zer zerbitzu mota eskaintzen den adieraziz eta guri bidali. Eskaera aztertuko dugu eta webgunean jarriko dugu, bezeroek ikus dezaten.